



Arartekoaren ebazpena, 2011ko otsailaren 23koa. Horren bidez amaitu da iragarpen honen inguruko esku-hartzea: enplegu-eskari aktiboa mantentzen ez zuten pertsonei diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa etetea.

Aurrekariak:

1. Erakunde honek, komunikabideen bidez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa EAEko jende askori eten zaiola jakin zuen eta horren inguruko ofiziozko jarduera bati hasiera eman zion.

Esku artean genuen informazioari jarraiki, Bizkaiko zenbait pertsonari prestazioaren etetea jakinarazi zitzaion. Pertsona horiek ez zuten entzunaldiaren izapidea gauzatu eta erabaki hori ez zitzaion espediente bideratu zuen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari alde aurretik jakinarazi.

Zenbait gizarte erakundek euren kezka helarazi digute erabaki horren iragarpena dela-eta.

2. Arartekoak aurretik azaldutako gertakarien inguruko informazioa eskatu zien Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailari, bai eta foru aldundiei ere.

Eusko Jaurlaritzak erantzun zuen errenta aktiboari buruzko plan pilotuaren garapenaren esparruan zera antzeman zuela: diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zuten pertsonen euren betebeharra, hau da, enplegu-eskari aktiboa mantentzea, ez zutela betetzen. Hortaz, 2010eko urrian foru aldundiei betebeharraren betetzea egiaztatzeko proposatu zion. Jarduera proposamenaren oinarriak lankidetzarako betebeharraren orokorra eta diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 24.1. artikuluan xedatutakoa ziren.

Horren ondorioz, hauxe erabaki zen: Eusko Jaurlaritzak foru aldundiei euren baseetako eta Estatuko Enplegurako Zerbitzu Publikoaren (SPEE) eta Euskal Enplegu Zerbitzua-Lanbide izenekoaren baseetako datuak alderatzearen emaitza emango ziela, enplegu-eskari aktiboa mantentzeko betebeharra betetzen zen egiaztatze aldera *"...eta ezein kasutan ez zaio proposatu Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kudeaketan inplikaturiko ezein erakunderi administrazio-prozedura erkidea eta abenduaren 23ko 18/2008 Legean bertan eta haren garapeneko arauzko araudian -Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren maiatzaren 25eko 14712010 Dekretuan- arestian adierazitako prestaziorako zehazki bildurikoa zorrotz betetzen ez dituzten neurriak burutzea".*





Eusko Jaurlaritzak haren erantzunean lan egiteko prest mantentzeko betebeharra gogorarazten du, 18/2008 Legearen 19. artikuluan eta diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.2 b artikuluan xedatzen dena. Modu berean, betebeharrak horretatik salbuetsita dauden egoeren berri ematen du: erabateko baliaezintasuneko pentsioen titularrak diren pertsonak; 23 urte baino gutxiago dituzten eta araututako ikasketak egiten ari direnak; bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen edota Euskal Enplegu Zerbitzua-Lanbide izenekoaren iritziz lan merkatuan integratzeko moduan ez daudenak; egoitza-baimenik ez daukaten atzerritarrak; Oinarrizko Errentaren prestazioaren titularrak izan zirenak, betiere, prestazio hori abenduaren 23ko 18/2008 Legea indarrean jarri baino lehen eman edo berrikusi bazen eta euren eskaera berri ez badute, 147/2010 Dekretuaren Lehenengo Xedapen Iragankorraren 2. paragrafoaren b) atalean xedatutako terminoetan.

Horrez gain, betebeharrak hori ez betetzearen ondorioak aipatzen ditu. 18/2008 Legearen 26. eta 27. artikuluek eta dekretuaren 43-48 artetako artikuluek zera zehazten dute:

“Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea eteteko aukerak ez ditu oro har eraginpean hartuko kolektibo espezifikoak, baina neurri hori etengabe enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egon behar duten eta betebeharrak hori betetzen ez duten hartzaileei aplikatu ahalko zaie.”

Zentzu horretan adierazten du datuak partekatzeko erakundeen arteko alde aurretiko akordioan egiaztatzerakoan arreta berezia jartzeko beharra aipatu zela, bidezkoak ez diren eteteak galarazteko.

Betebeharraren betetzeari buruzko zenbait kontu gaineratzen ditu ere:

Pertsonak betebeharrak hori bere gain hartzen du prestazioa onesten zaionean, une horretan exijitu ez bazaio ere. Izan ere, hasiera batean ez zen prestazioaren zati bat. Enplegu-eskatzaile gisa izena emateko beharra ez betetzeak prestazioa hilabete batez etetea eragingo du lehenengo aldia bada eta hiru hilabetez berri ere gertatzen bada. Prestazioen ordainketaren etetea prestazioaren eskubidea eten eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrera gauzatuko da. Pertsonak Enplegu Zerbitzu Publikoaren bulegoan alta ematen badu etetea eragin duenak baliorik gabe geratzen da.

Azkenik, adierazten du foru aldundiei eskatu diela *“zorrotz bete dezatela administrazio-prozedura, batez ere prentsan agerturiko informazioak kontuan izanda, eta bereziki adierazita eskubidea etetearen ondorio ekonomikoak, hots,*



ordainketaren berezko eteteak prestaziorako eskubidearen etetea ebazten duen ebazpenarekiko hurrengo hilabetean izan behar duela". Izan ere, horiek dira eteteko prozedura ebazteko eskumena duten administrazioak.

3. Hauxe da foru aldundiek Arartekoari bidali dioten informazioa:

2010eko urrian foru aldundiek Eusko Jaurlaritzako Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratzeko Sailburuordetzaren jakinarazpena jaso zuten, 147/2010 Dekretua aplikatzeko beharraren ingurukoa. Bertan, zenbait kontu aipatzen ziren, horien artean, enplegu-eskari aktiboa mantentzeko betebeharraren betetzea. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak hilero bidaltzen dituen ez betetze gertagarrien zerrendak aintzat hartu behar zituzten.

Gaineratu dute laguntzak hobeto kudeatze aldera, Eusko Jaurlaritzari elkarlanean aritzeko nahia jakinarazi ziotela, betiere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea zein lege hori garatzen duen dekretua errespetatzeko beharrekin.

Horrez gain, adierazi dute foru aldundiek ezin izan dituztela Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari lotutako daturik eskuratu eta zerrendak gurutzatzearen ondoriozko datuak bakarrik direla betebeharraren baten ez betetzearen susmoa, dagokion entzunaldiaren izapidetaren bitartez egiaztatu behar dena.

Eusko Jaurlaritzari jakinarazi zioten enplegu-eskatzailerik gisa etengabe egoteko betebeharrarik salbuetsita dauden zenbait kolektibo daudela eta hori aintzat hartu behar dela. Zehatz-mehatz Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen edota Euskal Enplegu Zerbitzua-Lanbide izenekoaren iritziz bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonak aipatzen dituzte. Datu hori ez da eskaera eredu normalizatuetan jasotzen, Word dokumentu baten egindako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen gizarte txostenean jasotzen da eta ez da aipatutako datuen trukaketarekin bateragarria.

Hilabete horretan enplegu zerbitzuan izena eman dutenekin aldundiek azaroko nominako datuak gurutzatzen dituzte eta ondorioz lortutako emaitza abenduko lehenengo egunetan lortzen da. Ia ezinezkoa da eteteko prozedura aplikatzea abenduko nominan ondorioak izan ditzan. Gainera, 147/2010 Dekretuaren aplikazioa, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonentzako betebeharrak berriak dituen, aplikazio araubide iragankorrak zailtasunak dituela aintzat hartuta.

Azkenik, foru aldundiek Eusko Jaurlaritzarekin izandako bileraren berri eman dute, bai eta lortutako akordioen berri ere:



- Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen datuak Euskal Enplegu Zerbitzuaren datu-basearekin gurutzatzea bukatzen den hilabetearen foru nominaren datuekin eta hilabete horretako azken eguneko enplegu-eskatzailearen erregistro publikoan agertzen diren datuekin egingo da.
- 22 urte baino gehiago eta 60 urte baino gutxiago (23-59 urte) dituzten pertsonen diru-sarrerak bermatzeko errentaren espedienteak barne hartu behar dira. Eta erabateko baliaezintasuna edo baliaezintasun handia duten pentsiodunak, aurrekoekin homologagarriak diren KGP (kotizazio gabeko prestazioa), GOF (Gizarte Ongizaterako Fundazioa) edo ELGL (Elbarriak Gizarteratzeko Legea) jasotzen dutenak; laneko errentetatik datozen diru-sarrerak dituzten pertsonak; 12. epigrafean deskribatutako arrazoiak direla-eta izena eman ez duten pertsonak, prestakuntza jasotzen ari diren pertsonak, ABLE egoeran daudenak... kanpoan utzi.
- Eteteko espedienteari hasiera ematea foru aldundi bakoitzari dagokio eta horrek, 18/2008 Legeak ezartzen duenari jarraiki, administrazio izapidea beteko du, dagokion udalean entzunaldiaren izapidea eskainiz. Zentzu horretan espedienteari hasiera eman izana interesdunari eta erreferentziazko udalari jakinaraziko zaie.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arabako Foru Aldundiak diote ez dutela eman edo bidali eteteko ebazpenik. Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi du jasotzaileei abenduko nominan diru-sarrerak bermatzeko errenta etetearen aurkakoa zela. Izan ere, 147/2010 Dekretuan ezarritako eta beharrezkoa den prozedurarekin bat eginez etetea gauzatzea ezinezkoa zen.

Hori guztia ikusita, jasotako gogoetetan eta informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren helburuen artean gizartearen bazterkeria pairatzeko arriskua duten pertsonen gizarteratzea eta lan merkatuan sartzea daude. Garrantzitsua da gogoraraztea, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen arrazoi azalpenean aipatzen den moduan, gizartearen bazterkeriaren aurkako borroka tresnen aplikazioaren balantzea positiboa dela eta horri esker gure gizartean muturreko pobrezia egoerak ez direla areagotzen. Gaur egungo egoeran, hau



da, krisia, lanaren suntsidura eta lan falta, prestazio horiek beharrezkoak bihurtu dira gure Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsonen iraupenerako, batez ere, krisiaren eraginik handienak pairatu dituzten taldeentzat.

Modu berean, Euskal Enplegu Zerbitzua-Lanbide abian jartzea gure erkidegoan bizi diren pertsonen enplegarritasuna hobetzeko aukera ona da. Eredu berriak prestazioen kudeaketan aldaketak eragingo ditu. Izan ere, Euskal Enplegu Zerbitzua-Lanbide izenekoaren bulegoa izango da prestazioen sistemaren eta lanaren aktibazioaren sarbidea. Eredu berri hori konfiguratzeko eta jarraibide berriak ezartzeko zain dago. Jarraibide horiek zenbait agenteri dagokie, beraz, zuhertasuna eta betebeharren exijentzian bermeak areagotzea beharrezkoak dira.

2. Pertsonen eskubideetan eta interesetan eragina duten erabakiak, aplikatzeko prozeduretan ezarritako bermeak betez hartu behar dira. Kasu honetan honako hauek dira: Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea; diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea; eta diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta honako pertsona hauei zuzenduta dagoen prestazioa da: oinarrizko beharrei lotutako gastuei zein gizarteratze prozesu baten ondoriozko gastuei aurre egiteko diru nahikorik ez daukaten eta bizikidetzat unitate baten barruan dauden pertsonak.

18/2008 Legearen 12. artikulua ezartzen du diru-sarrerak bermatzeko errenta zehazki prestazioa lortzeko arautu diren baldintzak betetzen dituzten pertsona guztientzat **eskubide subjektibo** bat dela.

Prestaziorako eskubidea eteteko aplikatu daitekeen arrazoia 18/2008 Legearen 26.1. artikuluan eta 147/2010 Dekretuaren 43.2.d) artikuluan ezarritakoa da, hau da: *"Aplikatzekoa denean, enplegurako prest ez egotea, enplegu-eskatzaile gisa etengabe izena emanda ez egotea edota enplegu egoki bati uko egitea"*.

Araudi honek berariaz adierazten du enplegu-eskatzaile gisa etengabe izena emanda ez egotea eteteko arrazoia dela "aplikagarria denean", baina ez du zehazten **kasu guztietan** eteteko arrazoia denik, zenbait administrazioek argudiatu duten moduan.

Prozedura diru-sarrerak bermatzeko errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 53-55 artikuluetan xedatutakoa da. Hauxe da



Arartekoak Eusko Jaurlaritzari eta foru aldundiei helarazi dien jarrera: diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren etetea dekretuz agintzeko aplikatu beharreko prozedura errespetatu behar da eta enplegu-eskari aktiboa mantentzeko betebeharretik salbuetsita dauden salbuespenezko egoerak adostu behar dira.

Ondorioz, ofizioz hasitako eteteko prozedura **aldez aurretik titularrari jakinarazi behar zaio** oinarri dituen arrazoiak adieraziz eta izan ditzakeen ondorio ekonomikoak azalduz, bai eta ebazteko eta pertsonari jakinarazteko epea ere.

Interesdunek beharrezkotzat jotzen dituzten **alegazioak** aurkeztu ditzakete.

Foru edo udal erakundeak **haien artean komunikatu behar dira** eteteko prozedura bati ofizioz hasiera ematen diotenean.

Eteteko prozeduraren izapideak egitea prozedurari hasiera eman dion organoari **dagokio**, organo horrek dekretuaren 30. eta 31. artikuluetan ezarritako egiaztapenak egingo ditu.

Foru aldundia ebazpena emateko eskumena duen administrazioa da **-arrazoitua** izan beharko da- eta **jakinarazi** beharko duena -hamar eguneko epean-.

Etetea eragin zuen arrazoia **indarrik gabe** geratzen bada prestazioaren sortzapena gertatzen da -hori onartzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen badira-. Izan ere, etetearen iraupena hori eragin duten inguruabarren mantentzeari lotuta dago.

Herri-administrazioek aplikatzeko araudiak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzte eta Arartekoak hori modu positiboan baloratzen du. Batez ere, entzunaldiaren izapidea eta helarazitako erabakia, hau da, prestazioaren ordainketaren etetea prestazioaren eskubidea eten eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrera gauzatuko dela. Eskubidearen etetea aldez aurretik pertsonari jakinarazi behar zaio, aurreko araudiarekin bat eginez. Modu berean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren etetea eragin duenak indarrik gabe geratzen denean, prestazioaren sortzapena gertatzea ere modu positiboan baloratzen du.

3. Eteteko arrazoi hori ez zegoen espresuki jasota aurretik prestazioa arautzen zuen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuaren 39. artikuluan. 147/2010 Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrak ezartzen du eteteko prozedurek prestazioak eskuratzeko baldintzei eta lehendik indarrean zegoen araudiaren ziozko betebeharrei lotuta daudela, kasuaren arabera, berraztertu



edo berritu arte. Hortaz, jasotzaileei ezin zaie prestazioa eten prestazioa ematerakoan aplikatzen ez zen betebeharrak ez betetzeagatik.

Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek haien erantzunetan betebeharrak hori betetzetik at dauden egoerak aipatu dituzte. Kanpo dauden egoera horiek EAE osoan berak izan behar dute. Horrez gain, argi eta garbi mugatuta egon daitezkeen garrantzitsua da, Gizarte Bermeen Euskal Sistemaren behar bezalako funtzionamendua ahalbidetzeko.

Hortaz, enplegu-eskaria aktibo izateko betebeharrak ez da jasotzaile guztiak konplitu behar duten betebeharrak eta, horregatik, behar bezala arrazoitu behar da prestaziorako eskubidearen etetea. Araudiak dio prestazioa eten daitekeela aplikagarria denean (18/2008 Legearen 26.1. artikulua). Artikulu horrek izaera murriztailea duela ulertu behar da; Arau mugatzaileak interpretazio murriztailea - eta ez zabala- aintzat hartuta interpretatu behar direla dioen zuzenbide printzipioa da. Enplegu-eskaria aktibo mantentzeko betebeharrak eska daitekeenean adostu behar da prestaziorako eskubidearen etetea. Halaber, lege horren 26.3. artikulua honako hau dio: *“Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea etetea eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean, prestazioa sorrarazteko baldintzak une horretan badauden ala ez egiaztatuko da, ofizioz edo interesdunak eskatuta, eta, baldin badaude, prestazioaren zenbatekoa ezarriko da. Prestazioa hura eteteko arrazoiak desagertzen diren egunaren biharamunetik aurrera sorraraziko da”.*

Horregatik, prestaziorako eskubidea eteteko prozedura baten barruan dauden pertsonak entzunaldi izapidean enplegu-eskatzaile moduan izena emanda dutela eta prestazioaren sortzapenerako gainontzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen badute, prestazioa sorrarazi behar da enplegu-eskatzaile moduan izena emanda duela egiaztatzen den egunaren hurrengotik aurrera, 18/2008 Legea aplikatuz.

4. Erakunde honen ustez egoera pertsonalagatik, gizarte eta ekonomia egoeragatik zaugarritasun egoeran dauden pertsonak zalantza eta nahasmen handia eragin zaizkie. Pertsona horiek, hasieran behintzat, sentitu dute haien oinarritzko premiei aurre egiteko behar duten prestazioa jasoko ez zutela ondorioztatzeko aukera ematen zuen eztabaida publiko batean sartuta daudela. Are gehiago, kasu batzuetan gauzatu ez zen etetearen jakinarazpena ere jaso zuten. Ez dugu ahaztu behar pertsona horiek EAEko zenbait legeek aitortzen dituzten eskubideen titularrak direla eta herri-administrazioekin dituzten harremanetan eskubideen titularrak direla; ez herritarrak bezala bakarrik (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikulua), baita gizarte zerbitzuen erabiltzaile gisa



ere (Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikulua), araudi horrek betebeharez gain, errespetatu behar diren pertsonentzako eskubideak eta bermeak xedatzen ditu.

5. Azkenik, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak ezartzen du euskal herri-administrazioek jarduteko tresna eta protokolo bateratuak arbitratu behar dituztela eta, hala badagokio, jardueren koherentzia bermatzeko eta baliabideak, informazioa eta ezagutzak modu arrazoizkoagoan eta eraginkorragoan aprobetxatzeko aukera emango duten lankidetzak hitzarmenak, eduki ekonomikoarekin edo edukirik gabe. Oinarrizko gizarte zerbitzuak zuzenean pertsonekin lotzen diren zerbitzuak dira eta arreta pertsonalizatuaren planari gehitutako ekintzak eta esku-hartzeak garatzen dituztenak dira. Eredu berrian ere Euskal Enplegu Zerbitzua-Lanbidek kudeatuko du. Erabiltzaileei eragiten dizkieten erabakien inguruko informaziorik ezak egiten duten lana zailtzen du. Horregatik, ezinbestekoa da Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak esku hartzen duten herri-administrazioen arteko informazioa hobetzea eta herri-administrazioen arteko komunikazioa edo harremana hobetzea. Hortaz, espedientea bideratu duen oinarrizko gizarte zerbitzuari informazioa ematea, prestaziorako eskubidea eteteko ebazpena eman baino lehen, aurrerapen bat da.

Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak garrantzi handia dauka gure gizartearen ongizatean. Gauzatzen duen lan bolumenak eta laguntzen dituen pertsonen zaurgarritasun egoerak politika eraginkorrak eta lankidetzarako estrategia baliodunak behar ditu.

Erreklamazioak hizpide duena ikusirik, aztertutako informazioa aintzat hartuta eta aurreko ataletan azaldutako gogoetak ikusirik, ondorio hauek helarazten dizkizugu:

Ondorioak

1. Herri-administrazioek bermeak areagotu behar dituzte (entzunaldia, arrazoiketa, jakinarazpena, etab.) pertsonari diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eteteko baliatzen den prozedura aplikatuz, arreta berezia emanez entzunaldi printzipioaren betetzeari, pertsonari emandako informazio bereziari eta oinarrizko gizarte zerbitzuei edota erabiltzailea artatzen duen enplegu-zerbitzuari aurretik jakinarazteari eta informatzeari.

Prestaziorako eskubidea bakarrik eten daiteke pertsonak enplegu-eskaria aktibo mantentzeko betebeharra duenean. Ordainketa eten ahalko da prestaziorako



eskubidea eteten duen ebazpena behar bezala jakinarazi ondoren eta ebazpen dataren hurrengo hileko lehenengo egunetik aurrera. Etendako prestazio hori berriro sortu behar da pertsonak enplegu-eskaria aktibo mantentzen duela egiaztatzen duen egunaren hurrengotik aurrera, gainontzeko baldintzak betez gero.

2. Prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonen kalteak saihestu behar dizkie araudi berria aplikatzeak behar dituen kudeaketako egokitzapenek (18/2008 Legea eta 147/2010 Dekretua), baita Euskal Enplegu Zerbitzua-Lanbide abian jartzeak ere. Ez dugu ahaztu behar pertsona horiek zaurgarritasun egoeran daudela eta herri-administrazioek babesa eta arreta eman behar dietela.

3. Egoera garrantzitsuei aurre egiteko, hala nola, gizarte bazterkeria saihesteko, gizarte eta lan arloko bazterkeriaren eta bazterkeria pertsonalaren egoerak arintzeko eta herritarren eskubideak modu eraginkorrean baliatzeko gizarte eta ekonomia baliabide eta baliabide pertsonal nahikoak ez dituztenen gizarteratzea eta laneratzea ahalbidetzeko behar diren baliabide eta tresnekin hornitu behar den euskal kohesio sozialaren eta babes sozialaren funtsezko faktore bat da Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema. Herri-administrazioek sistemaren eta artatzen dituzten pertsonen irudia kaltetzen duten eztabaida publikoak saihestu behar dituzte.

